

# PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Startinnovako proiektuan parte hartuko dugun Urretxu - Zumarraga ikastolako 1.B batxilergoko 4 ikasle gara: Markel, Eñaut, Garazi eta Sara. Gure enpresak GEMS izena du. Egunerokotasunean dauden arazo batzuk aztertu ondoren, aurrera eramane behar dugun proiektua, kalean egongo diren takilak izango dira. Hauek, arazo horietako batzuk konpon ditzakeela uste dugu, adibidez, erosketak egitetik datorren herritar bati bere lagunek deitu diote azken momentuan zinemara joateko eta bere etxea urruti gelditzen zaionez eta herri erdian dagoenez, ez dio astirik emango etxera itzuli eta zinemara joateko; horrelako momentu puntual batean kalean gauzak gordetzeko aukera emanez biztanleei.

Gure helburua herriko biztanleen bizitza erraztea da. Taldeko partaide guztiok kasuren bat ezagutzen genuen, non gauzak gordetzeko tokirik ez zegoenaren kexak egon zirela inguruan, eta horregatik kalerako takilak sortu, jarri eta mantentzen dituen enpresa bat sortzea erabaki dugu. Horrez gain, gure takilak bereziak izateko eta ez beste guztiak bezalakoak mugikorra kargatu ahal izateko aukera jarriko dugu eta udaletxei beraiek nahi duten bezala takilak pertsonalizatzeko aukera emango diegu, beraien herriko monumentu baten argazki bat jartzen adibidez.

Gure egunerokotasunean egoera asko ikusi eta bizi izan ditugu non iruditu zaigun kalean takilak edukitzea ondo etorriko litzaigukeela, etxea urrun geratuz gero, kalean gauzak gordetzeko da kasu esanguratsuena eta horregatik, proiektu honetan kaleko takilak eramango ditugu aurrera, horretarako, bezeroekin zein harreman edukiko ditugun, kostuak, diru sarrerak eta beste hainbat gauza adieraziko ditugu.

**GEMS**  
— × —  
**TAKILAK**